



A eredua

IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK**HE1
(B2 maila)****PROBA IDATZIA**

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan luzea 4) Idazlan laburra.
- Denbora: **3 ordu**.

IRAKURMENA

Baja eman

Leire nazkatuta dago, haserre begiratu du telefonoaren faktura, eta ondoren Internetena, eta azkenik xehetasunetan tabletarena. «Nola liteke?». Duela lau hilabete deitu baitzioten dena bateratzeko eskaintza egiten, dena baitzen abantaila, eta, bateratzearekin, «hutsaren truk» ordainpeko telebista ere opari. Bere burua madarikatu du, «ordainpeko, Leire, or-dain-pe-ko, nola izango zen bada musu-truk?».

Haserretu egin da bere etxeko sukaldean, oraindik kafea hartu ez badu ere, odola (...11...) . Beste edozerk ez, baina (...12...) sutan jartzen du. Telefonoa hartu du, egitera doana bitan pentsatu gabe: baja emango du (...13...). Telefonoaren baja, Internetena, tabletarena eta ustez (...14...) zen ordainpeko telebistarena. Informazio-zenbakira (...15...) du. Tonua. Musika. Ahots robotikoa. «Zure fakturen berri jakin nahi baduzu, sakatu 1; gure eskaintzen berri izan nahi baduzu, sakatu 2; Internetekin arazoak badituzu...». Leire sukaldean dabil mugikorra lepoan hartuta, kaferako esnea berotzen ari dela, eta ez ditu (...16...) ongi entzun; beraz, 4 sakatu du.

«Zure terminala berritu nahi duzu». Kaka. «Ez! Ez dut terminala berritu nahi, operadore batekin hitz egin nahi dut! O-pe-ra-do-re!». «Ez dizut ondo ulertu, errepikatu mesedez». Esnea irakiten hasi da kazolan, eskura erori eta (...17...) sortu dio, konturatu denerako, eskua ur azpian, ahots errobotikoa berriz hasi da: «Zure fakturen (...18...) jakin nahi baduzu, sakatu 1...». Honetan, amaierara arte entzun du aukera (...19...), eta azkenik «bestelakorik nahi baduzu, sakatu 7»; 7 beraz. «Segituan pasako zaitugu operadore batekin, itxaron apur bat, mesedez». Musika (...20...). Salan eseri da, kafesnea eta gailetak eskuan. Piniminimini... Bozgorailu eran jarri du mugikorra eta (...21...) ekin dio. «Segituan pasako zaitugu operadore batekin, itxaron apur bat, mesedez». Musika gero eta gorrotagarriagoa.

Ahoa gailetak beteta duela, «Kaixo, Monika nauzu, zertan lagundu (...22...)?». Leire bere intentzio irmora itzuli da eta zuzen esan dio: «Baja eman nahi nuke zuekin». Isiltasun txiki bat egin da eta Monikak esan dio: «Ziur zaude? Jakin nahi genuke zer dela eta egin nahi duzun hori». Hori. Izendatu ezin den zerbait bailitzan. Leirek (...23...): «Ez nagoelako gustura zuekin, eta (...24...) egin nauzuelako». Monikak ahotsa goxatu du: «Bueno, ikus dezagun (...25...) ez zauden gustura, guretzat garrantzitsua da bezeroak kontentu egotea, seguru konpondu dezakegula...». Leirek (...26...) irentsi du: «Bada, eskaini zenidaten guztia (...27...) da, telebista kobratzen didazue, ez dago deskonturik, zuek agindu bezala...». «Ongi da, ikus dezagun zein eskaintza dugun zuretzat». Eta eskaintza hitza entzuteaz bat, Leire zutik jarri da etxeko salan eta: «Ez! Ez dut eskaintzarik nahi! Ba-ja eman nahi dut!». Eta bospasei “ziur?”-en ondoren, Monika (...28...) egin da: «Ondo da, baja-departamentuarekin pasako zaitut; ez moztu, arren».

Leire lasaitu egin da, lehen proba gogorra pasata, zigarroa piztu du helmugara heltzeko gutxi falta zaiola pentsatuz. «Kaixo, Alberto nauzu, zertan lagundu zaitzaket?». Berrito azaldu dio dena Leirek, (...29...), arrazoiak, iruzurrak eta determinazioak. Albertok ahots lasaia dauka, aliantza moduko bat antzezten duena, bere bajarekin ezer pertsonalik ez balu bezala, laguntzeko prest (...30...) bezala. Eta halako batean, hitz (...31...): «Permanentzia duzu ordea, 24 hilabetekoa sinatu zenuen». Leire sutan jarri da, hain sutan Alberto bera iraintzen hasi baita, «barkatu, badakit ez dela zure errua, baina...» eta halakoak (...32...). Hala ere, permanentziaren ordainetan, dagokion (...33...) ordaintzeko prest azaldu da, eta bospasei “ziur?”-en ostean, «orduan, lehenengo ordainketa-sailarekin pasako zaitut, ados? Ez moztu, arren».

Helmugaren aurreko fasean dago jada Leire, eta orduan, musika gorrotagarria hasi behar zen (...34...) , «klok» bat aditu da telefonoaren beste aldean, eta bat-batean: «Zure fakturen berri jakin nahi baduzu, pultsa 1...». Leirek telefonoa itzali du, eta negar egin du sofán. « (...35...) egin dute».

Kattalin Miner

Administrazioa euskaraz 2017, 98. zkia. (moldatua)

A eredua

Idatzi zure aukerak erantzun-orrian. Han markatzen dituzun erantzunak bakarrik hartuko dira kontuan ariketa zuzentzeko.

11. a. irakiten b. dardarka c. itsumustuka d. tantaka	12. a. arinkeriak b. arlotekeriak c. iruzurrak d. pitokeriak	13. a. medikuarenean b. konpainian c. kuadrillan d. aseguruan	14. a. trukean b. txarra c. garesti d. dohainik
15. a. laztandu b. sakoneratu c. deitu d. markatu	16. a. berriak b. aukerak c. deiak d. beherapenak	17. a. beldurra b. erredura c. zauria d. aztarna	18. a. berri b. zenbakia c. albistea d. eskaintza
19. a. sorta b. bilduma c. luzea d. zama	20. a. samurra b. gorrotagarria c. serioa d. plastikoa	21. a. ikasteari b. gosaltzeari c. garbitzeari d. erosteari	22. a. zakizkit b. diezadakezu c. zaitzaket d. zeniezadake
23. a. lehor b. pozarren c. entzungor d. alaiki	24. a. erosi b. saldu c. zirikatu d. engainatu	25. a. zertaz b. zerekin c. norekin d. norgatik	26. a. amua b. eulia c. hitza d. txokolatea
27. a. egia b. gezurra c. onuragarria d. pagotxa	28. a. erre b. alaitu c. errenditu d. ziurtatu	29. a. pausoz pauso b. halaber c. pentsatu gabe d. beharbada	30. a. baleude b. baleki c. balego d. baletor
31. a. zirrargarria b. eta pitz c. korapiloa d. madarikatua	32. a. bilduz b. tartekatuz c. mamurtuz d. irainka	33. a. saria b. bitxia c. oparia d. isuna	34. a. berehala b. unean c. deika d. une oro
35. a. Galdu b. Engainatu c. Irabazi d. Eraman			

A eredua

AHOZKOAREN ULERMENA

Orain, grabazio bat entzungo duzu: Kutxa Ekoguneko Aitziber Otegirekin egindako elkarrizketa. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik, galderak irakurtzeko denbora izango duzu; gero, markatu zure aukerak Erantzun-orrian. Erantzun-orrian markatzen dituzun aukerak bakarrik hartuko dira kontuan ariketa zuzentzeko.

1. atala

1.- Zertarako da beharrezkoa konposta erabiltzea?

- a) Zaborrak birziklatzeko.
- b) Lur osasuntsua edukitzeko.
- c) Hondakinak aprobeztatzeko.
- d) Ingurunea garbitzeko.

2.- Noiz hasi zen konposta egiten?

- a) Azken urteetan.
- b) Birziklatzearekin batera.
- c) Betidanik egin da.
- d) Ongarri kimikoen ondoren.

3.- Non daude landareentzako oligoelementuak?

- a) Ongarri kimikoetan.
- b) Materia organikoetan.
- c) Kare-hautsean.
- d) Landareek sortzen dituzte.

4.- Konpostatzeko teknikarik ba al dago?

- a) Bai, kantitate handietarako.
- b) Bai, tontorrekoa.
- c) Hainbat teknika daude.
- d) Konpostagailua, bakarrik.

5.- Zerk egiten du konpostatzeko lana?

- a) Makinek.
- b) Eguraldi hezeak.
- c) Janari-hondarrek.
- d) Izaki bizidunek.

2. atala

6.- Zerez egiten da konposta?

- a) Produktu kimikoez.
- b) Landare- eta animalia-jatorriko gaiez.
- c) Barazkiez.
- d) Hezur eta oskolez.

7.- Konpostagailuan nola egiten da konposta?

- a) Hondakinak bere horretan sartuta.
- b) Ura eta hondakinak jarrita.
- c) Hondakina ondo zapalduta jarrita.
- d) Materia lehorrarekin nahastuta.

8.- Zenbat denbora behar du, gutxi gorabehera?

- a) Baldintza asko daude.
- b) Eguraldiak du zerikusia.
- c) Bi hilabete egin behar da.
- d) Aste batzuetako kontua da.

9.- Non egin daiteke zizare-konposta?

- a) Ibai ondoko baratzeetan.
- b) Lur lehorretan.
- c) Leku itzaletan.
- d) Lurrik ez dagoen gunean.

10.- Edozer janarik balio al du zizare-konposta egiteko?

- a) Ez, janari jakin batzuek ez.
- b) Azidodunak badira, bai.
- c) Usteltzen denean, bai.
- d) Bai, bestean bezala.



HE1 PROBA IDATZIA

ERANTZUN-ORRIA

Idatzi zure kodea:

AHOZKOAREN ULERMENA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

IRAKURMENA

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30

31	32	33	34	35

Idatzi zure kodea:

IDAZLAN LUZEA

Aukeratu gai hauetako bat. Gutxienez 175 hitz dituen idazlana egin behar duzu.

Autorik gabe, hobe. Urtero ospatzen den *Autorik gabeko eguna* hizpide hartuta, idatzi artikulua zure ikastetxeko web-orrirako. Garraio publikoak dituen onurak nabarmendu nahi dituzu. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Aztertu gehiegizko auto-kopuruak sortzen dituen arazoak.
- Komentatu egun bakarreko ekimenen eragina eta garrantzia.
- Azaldu garraio publikoaren aldeko jarrera.

Nola bultzatu irakurketa? Ikastetxean oso argi duzue etxean ere irakurtzeko ohitura indartu behar dela. Gurasoak eta ikasleak irakurtzearen garrantziaz ohar daitezen, idatzi artikulua bat ikastetxeko aldizkarirako. **Hizpide hauek garatu behar dituzu:**

- Azaldu zergatik den garrantzitsua irakurtzea.
- Aipatu etxean zer eta nola irakur litekeen.
- Plazaratu zure gogoetak eta ondorioak.

10.

20.

Idatzi zure kodea:

30.....

40.....

50.....

60.....

ERANTZUN ZUZENAK

HE1: Ahozkoaren Ulermena (Konposta)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
B	C	B	C	D	B	D	A	D	A

HE1: Irakurmena (Baja eman)

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
A	C	B	D	C	B	B	A	A	B

21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
B	C	A	D	B	A	B	C	A	C

31	32	33	34	35
D	B	D	B	C